



## Aizpurua, Eneko

(Lazkao, 1976)

**N**ire izena Eneko Aizpurua da. Lazkaon jaio nintzen 1976an, eta egun Iruñean dut bizilekua. Zuzenbidean lizentziaduna naiz, lanbidez itzultzailea eta tarteka-marteka idazlea.

Idazle baino lehen irakurle izan nintzen, ordea. Oraindik gogoan dut nolako jakin-mina pizten zidaten egunkariak txikia nintzela. Bazter ezezagunak, berri harrigarriak eta inoiz entzun gabeko hitzak oparitzen zizkidaten egunero-egunero. Bai, betidanik izan ditut gogoko egunkariak eta aldizkariak, ipuinak eta komikiak, nobelak eta saiakerak. Finean, irakurketa.

Irakurketa eta idazkuntza txanpon beraren bi aldeak direla esan ohi da. Hain zuzen, irakurzaletasunak eta nire baitako galdera eta zalantzei buruz gogoe- ta egin eta gizartean dauden kezka eta eztabaida gaiei buruz nire ikuspegia emateko nahiak bultzatu ninduten idaztera.

*Fortunaren gurpila* izenburua duen kontakizuna (Iruñeko Udala, 2008) izan zen nire idazle ibilbidean argitaratu nuen lehenengo lana. Kontakizun labur bat da, eta hari esker bigarren saria eskuratu nuen Iruñeko Udalak idazle gazteentzat antolatzen duen literatura lehiaketaren 2008. urteko edizioan, narrazio laburren sailean. Saria idazten eta argitaratzen jarraitzeko akuilua izan zen niretzat zalantzarik gabe.

Geroztik hiru nobela beltz argitaratu ditut, Erein argitaletxearen Uzta Gorria Sailean denak: *Errauts* (2011), *Herensuge gorriaren urtea* (2013) eta *Lehertu da festa* (2016). Mikel Egileor ikertzailea da hiru nobeletako protagonista, eta egungo gizartean nagusi diren hainbat gai eta kezka jorratzeko aukera izan dut ikertzaileak egindako ikerketei esker: immigrazioa, ustelkeria, botere harremanak, kultura, globalizazioa, etab.

Baina eleberrietan ez dira New York eta Los Angeles agertzen, “gure bazterrak eta jendeak” baizik: immigrante adingabeak eta haientzako aterpetxeak, Europako Kultur Hiriburutzaren atarian den Donostia eta Mikel Egileorren bizilekua den Egia auzoa, Bilboko San Frantzisko kalea eta itsasadarra, gure hiri eta herrietako txinatarren dendak eta kebab saltzaileak, Goierriko puntako enpresen egoitza diren industrialdeak eta lehen jentil euskaldunaren hilobia, negozio zikinak edo ezkutuko asmoak dituzten enpresaburu eta iraultzaile ustekoak...

Izan ere, nobela beltzetik gehien erakartzen nauena errealtatearekiko hurbiltasuna eta gizarteko kontu ilunak agertzeko duen gaitasuna da. Horren erakusgarri dira, esaterako, Dashiell Hammett-en eta Chester Himes-en eleberriak Estatu Batuetan, eta Jean Claude Izzo-ren Marseillako trilogia Frantzia. Nobela horietan, dagokion kasuaren ikerketa aitzakia bat besterik ez da gizartea bera ikertzeko, aztertzeko, susmopean jartzeko, eta, nire iritzian, gizarte ikuspegi hori da nobela beltz on batek derrigor eduki behar dituen osagaietako bat.

Nolanahi ere, genero beltzekoak ez diren nobelak eta ez-fikzioko lanak irakurtzea ere atsegin dut. Batez ere, gizarte edo garai jakin baten erraiak eta kontraesanak denen agerian jartzen dituzten literatura lanak. Nigan arrasto sakona utzi duten lanen artean dago, esaterako, Ramon Saizarbitoriaren *Hamaika pauso*. Bukatzeko, ez nuke ahaztu nahi, ezta ere, ez fikzioaren barruan, Stefan Zweig-en *Atzoko mundua*.

10



## Álava García, Sabino

*(San Sebastián, 1941)*

**S**oy un hombre de 74 años. Nací en San Sebastián; estudié en el colegio de los Hermanos de la Salle; en la Universidad del País Vasco inicié estudios de Periodismo y de Criminología, sin terminar -por motivos económicos- ninguna de las dos actividades. Por motivos laborales